

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GASTEIZKO UDALAREN 2017-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den uztailaren 24an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Gasteizko Udalaren, bere hiru erakunde autonomoen eta lau sozietate publikoen 2017ko ekitaldiko ekonomia eta finantza kudeaketaren fiskalizazio txostena; erakunde autonomoak dira: Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Luis Aramburu Udal Musika Eskola eta José Uruñuela Udal Dantza kontserbatorioa; eta lau sozietate publikoak dira: AMVISA, TUVISA, ENSANCHE 21 ZABALGUNEA eta GILSA.

2017ko ekitaldiko **Urteko Kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako doiketak azaleratu diren; horiek erregistratuz gero, Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina 13,1 milioi euroan murriztuko litzateke eta GILSAren Funts Propioak 841 mila euroan. Bestalde, ENSANCHE 21 ZABALGUNEAK ez du 2017ko abenduaren 31n Egoeraren Balantzean erregistratu Udalak lagatako zenbait aktiboren erabilera-eskubidearen balioa, ez eta Ibilgetuko Inbertsioetako eta Izakinetako kontu-sail jakin batzuen balio narriadurak eragindako galerak ere.

Fiskalizatutako Kontu Orokorrak erakusten duen finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak aztertutako aldiko ekitaldi guztietan aurrezki garbi positiboa izan duela eta zorpetze maila jaitsi duela. 2018ko ekitaldian, 2017ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina kreditu txertaketan finantzaketa iturri modura erabili da % 87,8an. Nolanahi dela ere, magnitude honek behin -HKEE honek doitu ostean- 5,1 milioi euroren saldo negatiboa du, batik bat kobratzeko dauden eskubideak likidezia bihurtzeko zailtasunak eraginda.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzaitzak jaulkitako txostenaren arabera, 2017an aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren araua bete dela. Gastuaren araua dela eta, baimendutako mugaren gainean zenbakarri den gastu-soberakina 12,6 milioi euroan zenbatetsi da.

Udalak, tokiko erakunde autonomoek eta sozietate publikoek zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz unean uneko ez-betetzeak azaleratu diren. Udalak eta TUVISAK, hurrenez hurren, 1 eta 2,2 milioi euroren gastuak publikotasun eta lehiarik gabe izapidetu dituzte. Udalean, kontratu baten eta Administrazioako emakida baten egikaritzak indarrean jarraitu dute behin amaitu ostean. Gainera, Gasteizen etxebizitzak eta egoitzatarako eraikinak

zaharbertzeko laguntzak arautzen dituen arauak aurreikusten duen zuzkidurak, ENSANCHE 21 ZABALGUNEAK onartutakoak, laguntza hauetarako aurreikusitako aurrekontua gainditzen du eta TUVISAK kontratu bat esleitu zuen zegozkion konpromiso-kredituak onarturik izan gabe.